



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2019/01/09

Bilera zenbakia: 07

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan Udaletxean

Parte-hartzaileak: Ainhoa (guraso elkartea), Tere (jubilatua), Xabi (Arbelaitz), Maider (Begiraleak), Maddi (zinegotzia) eta Izaro (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Urteko ekintza aurreikuspenaren hausnarketa
2. Ondarearen inguruko ideia zaparrada
3. Korrika
4. Jubilatuen Goierriko ibilaldia

2019ko aurreikuspena:

Hilabetea	Ekintza
Urtarrila	-
Otsaila	<p>8-15era: Mendi astea</p> <p>*8: Goierriko mendizale beteranoen erakusketa irekiera+ikusentzunezkoa</p> <p>*9 edo 10: Ibilaldia</p> <p>15: Joseba Iztuetaren ikusentzunezkoa</p> <p>23: Ijito eguna/ Gipuzkoako ziklokros txapelketa</p>
Martxoa	<p>9: Emakumeen eguneko bazkaria</p> <p>Sukaldaritza tailerra</p>
Apirila	Korrika
Maiatza	<p>Herri Urrats</p> <p>(Festa batzordeko lehen bilera)</p> <p>Goierriko jubilatuen ibilaldia</p>
Ekaina	San Juan bezpera, Zerbeza ferie
Uztaila	-

Abuztua	-
Iraila	Festak (Festa balorazio bilera) 27: Pintxopote+Antzerki
Urria	Ikastaroa (mermelada, hegaluze...) Kantu afaria
Azaroa	Gaztaina jana, Talo festa
Abendua	Euskararen eguna

1. Urteko ekintza aurreikuspena: Hausnarketa eta ekintzetan ardura banaketa (Ekintza fitxa errepassoa)

- Kultura batzordeak laguntza behar duenean, Herri Bizitzatik bideratuko zaio. Lan banaketa egitea ezinbestekoa dugu eta jendea ardura izan ezean, ez da hurbiltzen laguntzera. Aurretik lotu behar dira lanak.
- ANTZERKIA: Irailaren 27an lehen pintxopotearekin batera egitea proposatzen da. Kale antzerkia izan liteke eta agian festetan tabladua egoten den frontoiko lekuan ere egin liteke.
- KANTU AFARIA: Urriaren 25ean? Zehazteke

2. Ondarearen inguruko ideia zaparrada:

- Proposamen baten gainean hitz egin behar dugu. Jubilatuen elkartera joango gara ideia aurkeztera (Esango digute noiz)

3. Korrika: Herri Bizitzan lotuko ditugu kontuak, koordinatzailearekin batera (Ostiral arratsaldean eta larunbat goizean egin litezke ekintzak)

* **Goierriko aurkezpena:** Urtarrilaren 15ean, asteartean, 19-20etara Igartzan

* Apirilak 13, larunbata, goizeko 05:45 Legorretara iritsiko da

4. Jubilatuen Goierriko ibilaldia

Terek egitekoak zehaztuko ditu: Kruzeak egiteko zenbat lagun, merienda edo "tentempié" zenbatentzat, oroigarriak...

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Otsailak 13, 19etan		